

4. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure ideia aurrera eramateko hainbat bazkide edota hornitzaile ezberdin beharko ditugu. Lehenik eta behin, gure ekintzak aurrera eramateko, dirua beharko dugu, beraz, gobernuaren diru laguntzak jasoko ditugu. Gainera, beharrezkoa bada gure poltsikotik dirua ere jartzeko prest egongo gara. Hortaz gain, bazkide edukitzeko aukeraren atea ez dugu ixten, hainbat momentutan diru laguntza gehiago beharko baititugu.

Bestalde, jakinda pertsona askok ez dutela diru asko edukiko kirolentzat arropa egokia uzteko enpresa baten laguntza beharko dugu, “Forum Sports” enpresarena zehazki. Adibidez, futbol txapelketa aurrera eramateko, beharrezkoak izango genituzke futbolerako zapatila egokiak edukitzea edota mendirako bota egokiak edukitzea ere.

Hortaz gain, irteerak egiterakoan janaria ere behar dugu, horregatik “Juantxo” tabernak eskura jarriko dizkigu bere era ezberdinetako bokadiloak. Gainera, ez diegunez bokadiloak bakarrik eman nahi, guk ere sukaldatu egongo dugu lehen aipatutako bazkari herrikoietan, beraz “Todo-Todo” super-merkatuak janaria emango digu gero guk horrekin beraiei sukaldatzeko eta ekintza hori bete ahal izateko. Aipatu beharra dago, bazkari hauek gertatzeko platerak etab. beharrezkoak direla. Hauek, super-merkatu berdinetik hartuko genituzke.

Gainera, eskulanean tailerrean norbaitek parte hartu nahi badu, materiala eskura izatea egokia izango zen, beraz, “Tamayo” deituriko materialen dendarekin akordio batera iritsiko gara beraiek eskura jartzeko beharko duguna pultserak egiteko. Tailerrekin jarraituz, “Forum Sports”ekin sartzen gara berriro, kamixetak egiteko beraiek eskura jarriko baitituzte beharrezko materiala.

Azkenik, guk gure partetik jarri beharko dugu pertsonen laguntzeko. Arazoren bat badaukate laguntzen saiaturako gara eta gizarte honetan integratzen lagunduko diegu, nahiz eta gure lehen nahia euskaraz irakastea ez den, laguntza eskatuz gero laguntzeko prest egongo gara.